

SEME-ALABA EUSKALDUN ELEANIZTUNEN GURASOENTZAKO PROPOSAMENAK ETA AHOLKUAK

GU BAI GURASO BERRITSUAK

HAURRAREN KOMUNIKATZEKO GOGOIA ETA LEHEN HITZAK

Paula Kasares

Soziolinguistikan doktorea eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakaslea

1

Bizitza komunikazioa da.

Komunikazioa eta hizkuntza gizakion ezaugarri berezkoak jotzen ditugu, gure bizitzari lotuak, bizirauteko eta ongi bizitzeko beharrezkoak baitzaizkigu sortzetik beretik.

Bizitza komunikazioa da.

Komunikazioaren eta hizkuntzaren garrantzia hasieratik.

Hasieratik komunikazioa erraztea, piztea eta laguntzea oso onuragarria da haurarentzat. Haurraren komunikazioari begiratzea haurraren zorientasunari begiratzea da.

Beraz, garrantzitsua da zenbait gauza jakitea:

- Zer nolako komunikazio beharrak ditu umeak?
- Nola susta dezakegu komunikazioa?
- Zein momentutan dago hizkuntza ikasteko prozesuan?
- Nola lagun diezaikegu hizkuntza(k) ikasten?

2

Komunikazio gara.

Umeak sortzetik beretik komunikatu nahi du. Haurrak gizakiekin zerikusia duen oro nahiago du (musika baino nahiago, amaren ahotsa; pantaila baino nahiago, aurrez aurreko elkarrekintza; perfumerik goxoa baino nahiago, amaren usaia...).

3

Komunikazioa emozioak pizten du.

Emozioa da komunikazioaren lehen mekanismoa. Komunikazioa emozioak pizten du. Haurrak sentitzen duenak aditzera eman nahi du, komunikatu nahi du. Hasieran haurrak mugitu, luzatu, hasperen, aharrausi, irri eta negar baizik ez du egiten; eta helduok keinu eta mugimendu horiek interpretatu behar ditugu jakiteko umea gustura dagoen, zerbait behar ote duen. Ikasten dugu haurraren komunikazio seinaleak "irakurtzen". Guk ikasten dugu gure umeari ulertzen eta prozesu horretan hizkuntzaz baliatzen gara uneoro, hala haurrari mintzaira ikasteko bidea erraztuz.

4

Hizkuntza, gure gizatasunari lotuta dago.

Hitz egitea arnasa hartzea bezalakoa.

Umeak bizitzaren lehen momentutik inguruan duen ezinbesteko zerbait da hizkuntza. Komunikatzeko, harremanak egiteko, bere burua antolatzeko, bere beharrak adierazteko, bere nortasuna eratzeko, mundua ezagutzeko, jolasteko, ikasteko... gizartean bizitzeko eta, bizi ez ezik, ongi bizitzeko ere beharko du umeak hizkuntza.

Haurraren beharrak ⇒ harremana

Esan dugunez, haurrak hizkuntzaz jabetu nahi izango du (eta jabetuko da) bere nahiak adierazi eta beharrak asetzeko balio baitio.

Haur guztiek beren inguruan mintzatzen den hizkuntza bat bederen ikasten dute. Gizakiok genetikoki hizkuntzaz jabetzeko prestaturik gaude. Mintzaira ikasteko gaitasuna berezkoa du umeak baina nahitaez, horretarako jendea behar du ondoan, gizarteratu edo sozializatu behar du.

Sortu baino lehen, amaren sabelean, hasten da umea hizkuntzaz jabetzen eta ama ere hasten da barruan daraman umeari hizkuntza ematen, oharkabean bada ere.

Nola hasten da mintzaira ikasteko prozesua? Sortu baino lehenago ere hizkuntzaz jabetzeko prozesua abian da.

Sabelean dagoenean umea hizkuntzaren doinuekin ohitzen hasten da eta jaiotzen denetik mintzaira bereganatzeari ekinen dio.

5

Komunikatu nahi izatek ahoz komunikatzen hastera.

Hasieran hitzik gabeko komunikazioa da.

Haurrak ondoan dituen gizakien arreta bildu nahi du eta helduen erantzuna garrantzitsua da. Haurrak erantzunik jasotzen ez badu, etsi edo frustratu daiteke. Aldiz, umearen komunikatzeko gogoari erantzun egokia ematen badiogu eta hura sustatzen badugu, komunikatzen segitzeko gogoia piztuko diogu.

Haurrarekiko komunikazioan hitzarekin batera beste adierazpide ugari ere ditugu eskura: begirada, ahotsaren doinua, keinuak, irri-hotsak, laztanak, muxuak... Komunikazioa eta emozioa loturik doaz.

Susta dezagun komunikazioa. Otorduetan, xatarra (pixoihala) aldatzean, sehaskatik hartzean... elkarrizketa xumeak izateko momentu egokiak dira. Hizkuntza goxo eta emozionalaren bidez gure umearekin konplizitatea lortzen hasiko gara.

Gurasoen eta haurraren arteko konplizitatea goxatu hizkuntzaren bidez. Elkarrizketa xumeekin batera abestiak, haur zaintzari loturiko formulak eta, oro har, haur folkloreko pieza poetikoak (sehaska kantak, joko formulak, lelotegiak...) egoera goxo horietarako baliabide ezin hobek dira hizkuntzaren soinuekin, erritmoarekin jolasten hasteko. Hizkuntzaren bizipen ludikoa eman diezaiokegu haurrari ttikitatik. *[Adibideak: Talu txin, Amaren zango, arrautza]*

Hizkuntza erabiliz ikasten da, eguneroko egoera ttipietan, elkarrizketa xumeetan, kontaketa ohikoetan, errutina komunikatiboetan... Mintzaira gurasoen eta haurraren arteko harremanaren lokarri gozagarria izan daiteke, jolasgai eta bizipen ludikoa. Hizkuntzaz goza dezakezue gurasook eta haurrek. Hizkuntza jolasgai bihurtu.

6

Hizketan hasi arte, bide luzea egiten du haurrak hizkuntza ikasten.

Hizkuntza lehen hitzak agertu baino lehenago hasten da. Haurra hiztuna da hasieratik.

Lehendabiziko hitzak agertu baino lehen keinuek eta bokalizazioek hizketan hasteko prozesuari lagun diezaioke.

Lehen bokalizazioak komunikazioa dira.

6-10 hilabete dituenean. Lehen bokalizazioak, irri-hots kontrol gabeak, solas zezelak [*balbuceos*], aho-puzkerrak [*pedorretas*], aho jolasak... hizketan hasteko beharrezko entrenamendua dira.

Lehen bokalizazio horiek haurraren asmo komunikatiboaren emaitza dira: gurekin elkarrekintza (interakzioa) bilatzen du, asmo eragilea dute (beharrak, nahiak... adierazteko erabiltzen ditu haurrak eta gure erantzuna bilatzen dute), gu erakarri nahi gaituzte, gure arreta bildu nahi dute. Bokalizazio horiek balioetsi eta susta ditzagun.

±10 hilabete dituenean. Hitz zezelak hizkuntzara hurbiltzen dira. Haurrak bere mintzaira berekia asmatu duela dirudi. Hots errepikatuak agertzen dira (*dadadada, tatatata, mamamama, papapapa...*). Haurra ahoaren mugimenduekin esperimentatzen ari da gero eta kontrol handiagoa lortuz. Esperimentazio horiek hiztun gaitasunetan trebatzeko ezinbestekoak dira: beraz, *bakarrizketa* horiek balioetsi, sustatu eta zuek ere horietan parte hartu, *elkarrizketa* bihurtu daitezke. Horrela hasten da haurra ikasten nola solastatzen garen, hizketarako txandak daudela...

Haurraren ahozko produkzio orori erantzun, haurrarekin solastu-jolastu, esperimentatzen segitzeko gogoia piz iezaiozue.

7

Lehen hitzak

10-12 hilabete dituenean. Aurrehitzak [*protopalabras*] agertzen dira. Haurra hasten da inguruko errealitatea (maite duen jostailua, nahi duen jakia...) izendatzen, baina ez du *modu konbentzionallean* egiten, hau da, ez du guk bezala ahoskatzen (ezin du oraindik ongi ebaki edo ahoskatu). Askotan guk ez beste inork ez dizkio ulertzen aurrehitz horiek.

Ulertzea produzitzearen aurretik doa. Helduen eredu, estimulazioa, hiztegi *inputa* garrantzitsua da. Beraz, haurrari egiozue hizketan (galdetu, kontatu, azaldu, deskribatu...). Oraindik erantzuten ez badizue ere, hitz emari hori ulertzen hasia izanen da eta haren ikaste prozesurako lagungarria izango zaio.

±18 hilabete dituenean. Hasieran hitzak pixkanaka ikasiko ditu. Astean hitz berri bat edo atzemango diogu. Baina haurraren hiztegia kopuru kritikoa batera (berrogeita hamar bat hitzetara edo) iritsita, prozesua arinduko da eta haurra *hitz harrapatzaile* bihurtuko da. Egunero hitz bat edo bi bereganatuko ditu.

Pentsatu, 2 eta 6 urte bitartean haurrak egunero hamar bat hitz berri ikas ditzakeela. 6 urte dituenean, Lehen Hezkuntza hasterekin, haurrak 10.000 inguru hitzeko hiztegia izatera irits daiteke eta oinarriko elkarrizketetan ihardukitzeko (hitz egiteko) gauza izango da.

Haur guztientzat ibilbide bakarra ez da. Haur bakoitzak bere erritmoa du. Bilakaera arrunta edo tipikoa dago baina ibilbide ezberdinak haur bakoitzarentzat. Ez konparatu haurrak haien artean. Bakoitzak bere erritmoa izan dezake.

8

Haurrei hizkuntzaz jabetzen laguntzen ahal diegu.

Jarrera aktiboa behar da. Hitzezko (eta ez-hitzezko) komunikazioa piztu, elikatu, sustatu: aukera guztietan haurrekin solastatu, hari mintzarazi (galdegin, kontatzeko eskatu, deskribarazi...), betiere komunikazioaz eta solastatzeaz gozaraziz.

Haur hizkeraren funtzioa eta garrantzia. Haur hizkera helduok haur txikiei zuzentzean erabiltzen dugun hizkuntzaren bariedade berezia da: astiroago mintzatzen gara, intonazio enfatikoagoa egiten dugu, errepikapenez josia, modu goxoan, errazean...). Hizkera hau garrantzitsua da. Hizkuntza batzuek umeei solas egiteko molde bereziak, laburrak eta goxoak, sortu dituzte haurrei hizkuntza munduan murgiltzeko bidea erraztearren (aldaketa fonetikoak [bustidurak], morfosintaktikoak [aditz laguntzailea ezabatzea, indartu nahi den sintagma errepikatzea...], hiztegia [izaera onomatopeikoa duten hitzak]). Haur hizkera erraza, goxoa eta errepikakorrek haurri hizkuntzaren atalez ohartzen eta horiek segmentatzen laguntzen dio. [Adibidea: - Ah, zer gaileta goxoa!; - Gaileta nahi duzu, maittia?; - Norentzat da gaileta hau, norentzat?]

Ez izan zorrotzak haurren ahozko produkzioekin. Haurrak oso pragmatikoak dira eta maiz hitz gutxiarekin asko adierazi nahi izaten dute. Adierazpen *ekonomiko* horiek, holoesaldiak [holofrases], ongi ulertzeko haurren komunikatzeko modua, egoera, intonazioa... ezagutu beharko ditugu. Horiek ulertzeko ahalegina egitea garrantzizkoa da, handia baita ez-ulertua sentitzeak dakarren etsipena.

Komunikazioak haurren soziabilitateari laguntzen dio. Aldiz, komunikatu ahal izateak (ulertua izateak) haurri komunikatzen segitzeko gogoia piztuko dio, gero eta hobeki, gero eta osoago eta zuzenago. Horrek, gainera, giza elkarrekintzetan parte hartzeko gogoia nahiz erosotasuna emango dio.

Momentu batean haurrak bere hizkuntza gaitasunak ahalbidetzen dion abiaduran baino arinago nahi izango du komunikatu eta gauzak esan. Orduan, arrunta izaten da haurra hizketan tratatzea, totalka hastea... Ez da arduratzeko arrazoia. Ez dadila izan komunikazioa eteteko edo mututzeko arrazoia izan.

Gehiegi zuzentzea ez da eraginkorra. Aldiro zuzentzen ibiltzeak komunikatzen segitzeko gogoia ken diezaioke haurri. Ikerketek erakutsi dutenez, gehiegi zuzentzea ez da eraginkorra. Areago ere, desegokia ere izan daiteke. Zuzendu beharrean, hona egitea komeni dena: eredu egokia eman, gaizki esana birformulatu; betiere, komunikazioa sustatuz eta haurren produkzioa txalotuz. Modu positiboan, motibagarrian.

9

Gurasoen aukerak

Familiaren hizkuntza elkarbizitza irudikatu. Zuen eskuetan dago, hasieran behintzat, zuen haurra zer hizkuntza mintzatuko den, eta momentu honetatik has zaitezke erabakiak hartzen.

Familiaren hizkuntza elkarbizitza planifikatu. Umeak txikitatik euskararekin harremana izatea nahi baduzue orain da momentua hori aurreikusteko.

Azken finean, haurrak inguruan aditzen duen eta ingurukoek egiten dioten hizkuntza edo hizkuntzak ikasiko ditu normaltasun osoz.

Haurrak txikitatik euskara hitz egin dezan nahi baduzue, euskaraz aditzeko eta aritzeko aukera nahikoak eta askotarikoak eman beharko dizkiozue, euskara gizartean ahulagoa baita.

Familiaren bizitzan euskarak tokia izatea planifika dezakezue.

- **Guraso euskaldunak: euskara lehena.**

Etxea da txikitatik hizkuntza ikasteko lehen eremua. **Guraso euskaldunok** aukera hori duzue: etxean euskaraz egitea eta euskara umeen lehen hizkuntza izatea (**euskara lehena**), familian ikasia eta gozatua. Hortik aurrera beste hizkuntzak etorriko dira, zalantzarik gabe. Bizi garen inguruan gure haurrek ez dute arazorik izango gaztelania ikasteko eta erabiltzeko, etxean euskara soilik irakatsita ere. Lehen urteetan etxean hizkuntza gehiago izatea ez da beharrezkoa. Gizartean ahulena den hori, euskara, etxean sendo ikasteko aukera bermatzea da garrantzitsua. Gaztelania eta atzerriko hizkuntzak ikasiko ditu.

Edonola ere, bertze hizkuntza horiei lekua egin nahi bazaie, zenbait errutina ludiko txerta ditzakegu egunerokoan (irakurri ipuina eta haren ganean solastatu ingelesez, edo bertze jardueraren bat bertze hizkuntza batean egin, maiz baina denbora mugatuan). Bertze hizkuntza batzuk txikitatik ikas ditzaten laguntzeko bide bakarra ez da gurasoek hizkuntza horietan haurrei beti egitea. Gurasoek hauta dezakete beraien eta haurren arteko harremana eta lotura afektiboak euskaraz izatea eta bertze hizkuntza batzuk ere irakastea.

- **Bietariko gurasoak dituzten familiak: bakoitzak berean, modu koherentean.**

Bikotekideetako **batek euskaraz gutxi edo batere ez badaki**, gurasoen artean hizkuntzei emango zaien tokiaz solastatzea eta hori adostea funtsezkoa da. Kasu horietan haurrak etxean bi hizkuntza ikas ditzake, baina euskaraz, guraso batekin bakarrik egiteko aukera badu, guraso horrek beti euskaraz egin beharko dio haurrari, modu koherentean (edonon, edonoiz, edonoren aurrean...).

Euskaraz ez dakien gurasoa **gaztelania ez den beste hizkuntza bat** mintzatzen bada (portugesera, arabiera, amazigera (*tamazight* edo berberera), frantsesa, alemana...), hark ere haurrari mintzaira horretan koherenteki hitz egitea komenigarria da.

Hala eginik, haurrak guraso bakoitza hizkuntza batekin lotuko du eta bakoitzarekin horretan egiteko ohitura hartuko du.

- **Euskaraz ez dakiten gurasoak: motibazioa eta erabiltzeko aukerak.**

Familia txikitan hizkuntzak ikasteko tokirik ohikoena izaten da, baina ez bakarra. **Euskara (ongi) ez dakiten gurasoek** euskara ezin izanen diote haurrari irakatsi baina hizkuntzekiko eta euskararekiko **jarrera, jokaera eta balio egokiak** transmiti diezazkiokete, eta hori funtsezkoa da. Hori da egin dezaketen ekarpena. Gurasoek haurrak txikitatik euskara ikas dezan planifika dezakete, haurrak hizkuntza ikasteko eta erabiltzeko aukerak eman eta umea motibatuz. Hizkuntza ez ezik, hari loturiko **jarrerak eta balioak** ere bereganatuko ditu haurrak hasieratik.

10

Euskara eskolan eta eskolatik kanpo ere ikasten da. Hizkuntza ikasten segitzeko aukerak eskolan eta eskolatik kanpo ere daude.

Behin eskolan hasiz gero, haurraren hizkuntza ikasteko prozesua sendotuko da: sozializazio berriak, irakurketa eta idazketa prozesuaren hasiera, atzerriko hizkuntzen ikasten hastea, eskolaz kanpoko jarduerak. Haurrak hizkuntza komunikazio egoera guztietan ikasiko du.

Haurrak euskararekin izanen dituen harremanak zaindu. Eskolan hasita ere, komenigarria da haurrak etxean eta eskolatik kanpo euskararekin duen harremana zaintzen segitzea.

Etxean, gurasoek beren artean egiten duten hizkuntza batez ere, hizkuntza erreferente eragingarri bilakatuko da haurrarentzat. Kontuan hartu haurrek hizkuntza ez dutela soilik ikasten berari zuzenean egiten diotenetik, haiek dauden egoeretan helduek egiten duten erabileratik ere ikasten dute eta, gainera, haurrek helduen elkarreragin komunikatibo horietan parte hartu nahi izango dute.

Eskolatik kanpo haurrak dituen bizipen sozial guztiak dira hizkuntza ikasten segitzeko eta hizkuntzaren erabilera sendotzeko aukerak. Adinkideen arteko harremanak bereziki eragingarriak dira haurrarentzat. Haurrek hizkuntza beste haurrengandik, bai eta beste hurrekin izaten ere, ikasten dute.

11

Gurasoentzako laguntzak eta baliabideak

Zeregin horretan gurasook ez zaudete bakarrik. Zuen esku dago, neurri handi batean, zuen haurra txikitatik euskalduna izango den edo ez, baina horretan ez zaudete bakarrik.

Gurasoetako batek edo biek euskara ez badakite ere, badute haurra txikitatik elebiduna izango dela ziurtatzeko beste bideak.

12

Gozatu umearen bizitzaren momentu honetaz

Komunikazioa eta hizkuntza (euskara) umearen zoriontasunarekin lotu.

Gurasook komunikazioa eta hizkuntzaren garapena sustatzeko duzuen egitekoa lehen hilabeteotan.

Hizkuntza gozatzeko ere bada.

BIBLIOGRAFIA

- ARRIETA, Y. (2016). *Aho bete amets. Ahozko haur poesiaren alde*. Berriozar: Denonartean.
- BOIX-FUSTER, E. eta TORRENS, R. M (arg.) (2011). *Les llengües al sofà. El plurilingüisme familiar als països de llengua catalana*. Lleida: Pagès.
- GABILONDO, A. (2010). *Artesanos de la belleza de la propia vida*. Barcelona: Centre de Cultura Contemporània de Barcelona
- HARDING, E. & RILEY, Ph. (1986/1998). *La familia bilingüe. Guía para padres*. Madrid: Cambridge University Press.
- ITUERO, B. eta CASLA, M. (2017). *¿Cómo empieza el lenguaje? Descubrir, explorar y favorecer la comunicación temprana*. Barcelona: Graó.
- KASARES, P. (2014). *Emaiozu bizia. Dale vida al euskera liburuxkaren eta bideoaren edukiak*. Erandioko Udala.
- O'GRADY, W. (2005/2010). *Cómo aprenden los niños el lenguaje*. Madrid: Akal.
- ROVIRA, M. (2014). El plurilingüisme familiar. *Llengua i Ús* 54.
Sarean: <http://www.raco.cat/index.php/LlenguaUs/issue/view/21040>